

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)  
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)  
2007/2008 IKASTAROA

**ARGIBIDEAK:**

**Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.**  
**Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.**

Gasteizen bada Artiumaz gain museorik. Eta onak gainera. Arabako Arte Ederretako Museoa adibidez. Margolanik gehienak kostunbristak dira. Garai batean miretsiak, **gaitzetsiak** ondotik. Gustuko dut hara joan eta koadroei begira egotea. Eta detaileez ohartzea. Xehetasunetan jartzen zuten arretaz jabetzea.

Askotan ahaztu egiten bazaigu ere detaileek ematen diote artelanari zorrozatasuna. Baita literaturan ere. Areago literaturan batez ere. Koadroen garai bereko liburua hartu dut eskuartean. Txomin Agirreren *Kresala*. Ez naiz arituko haren planteamendu estetikoan gaurkotasanaz. Eztabaida ergela iruditzen zait hori. Tradizioari ez zaio begirakunerik egin behar. Irakurketa estuek ez garamatzate inora. Gaurkotasunetik egindakoak, **egun** beste inoiz baino **azkarrago** bagina bezala. Detaileez ohartu naiz Agirreren nobelan. Nola gauza den kale oso bateko bizitza deskribatzeko, xehetasun guztiekin.

Vladimir Navokovek elkarrizketa batean honako hauxe esan zuen: «eskolak erakusten nituenean kezka bakarra nuen buruan. Ikasleak detaileez ohartaraztea. Liburuetako detaileei buruzko informazio zehatza ematen nien. Izan ere, detaileen konbinaziotik sortzen da liburua izaki bizi bihurtzen duen **txinparta**». Ikastaroa hasi baino lehen hauxe esaten zien ikasleei: «Maisulan baten sekretua beti dago detaileen erabilpenean».

Detaileak behar-beharrezkoak dira pertsonaia bat sinesgarria izan dadin. Protagonista izan ala ez. Bigarren mailako pertsonaiak lantzean datza askotan tramari eutsiko dion kontakizunaren indarra. John Forden filmetan bezala. Bigarren mailako pertsonaiak protagonistak adina indar dute haren filmetan. Badu bakoitzak izaera zehatz bat, hitz egiteko modu jakin bat, oinez egiteko modu jakin bat, bizitzeko jarrera jakin bat.

Beldur naiz ez ote dugun zehaztasun hori galdu idazleok. Gauza garen paisaia bati begira egon eta xehetasunez ohartzeko. Irakurlea pertsonaia baten konplexutasunaz ohartarazteko. Ez dakit. Inportanteak dira detaileak. Baita eguneroko bizitzan ere. «Maite zaitut» esatea ez da nahikoa. Ez da ezer, ondotik detailerik ez badator.

## Ulermen galderak

1. Zer izan behar du nahitaez maisulan batek? (Puntu bat).
2. Zer erakusten zien Navokovek ikasleei? (Puntu bat).
3. Zer gustatzen zaio idazleari? (Puntu bat).

## Berridazketak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi beltz nabarmenez idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

*Baita eguneroko bizitzan ere. ....bai*  
*Pertsonaia bat sinesgarria izan dadin. ....-teko*  
*Eskolak erakusten nituenean. ....-larik*  
*Askotan ahaztu egiten bazaigu ere. Nahiz.....-n*

5. Lotu ezkerreko hitzak eskuineko zutabekoekin. Hitzak beltz nabarmenez agertzen dira testuan. (Puntu bat).

egun	gaur
azkar	mesprezatu
gaitzetsi	txindia
txinparta	agudo

6. Egin ezazu esaldi bana testuko hitz atzizkidun horiek erabiliz. Hona hitzak: *xehetasun*, *erabilpen*, *bigarren*, *kontakizun*. (Puntu bat).

## Idazketa

Museoren batean egon zara edo liburu interesgarriren bat irakurri duzu azkenaldi honetan? Idatzi zeintzuk izan diren eta azaldu zergatik gustatu zaizkizun. Idatzi honi buruz 20-25 lerro gutxienez. (4 puntu).

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)  
 EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)  
 2007/2008 IKASTAROA

**ARGIBIDEAK:**

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.  
 Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Jugoslaviatz hitz egitean aniztasuna aipatu behar da. Izan ere, haren historia luzean, hainbat herrialdek osatu izan dute, guztiek ere euren kultura eta ohitura bereziekin. Gaur egun Serbia eta Montenegro estatuak osatzen dute, eta hango hiriburua Belgrada, Serbian kokatua. Beste hiri garrantzitsua Podgorika da, Montenegroko hiriburua. Baina ba al dakizu nondik nora ibili den gaur egungo itxura lortu arte?

II. Mundu Gerran nazien erasoak garaitu eta gero, Jugoslaviako Erresuma Demokratiko Federala sortu zen. Sei herrialdek osatu zuten: Serbiak, Montenegrok, Esloveniak, Kroaziak, Mazedoniak eta Bosnia-Herzegovinak. Horietako bakoitzak bere izaera eta ondarea zituen. Ondorioz, Jugoslaviaren barruan hainbat hizkuntza hitz egiten zituzten eta bakoitzak bere kultur adierazpenak zituen.

1991n, ordea, Jugoslaviaren barruan zeuden sei herrialdeetako lauk independentzia aldarrikatu zuten. Hala, Eslovenia, Kroazia, Mazedonia eta Bosnia-Herzegovinak euren estatuak sortu zituzten. Horrenbestez, egun Serbia eta Montenegro estatuak osatzen dute Jugoslaviako Errepublikak Federalak. Horretaz gain, bi lurralde autonomo daude: Kosovo eta Vojvodina. Beraz, iraganean bezala, oraindik ere aniztasuna da nagusi Jugoslavian, herrialde bakoitzaren izaerarekin guztiena aberastuz.

Paisaietan ere Jugoslavian ugaritasuna da jaun eta jabe. Jugoslaviaren iparraldean zelaiak nagusi. Han lurra oso emankorra da, eta nekazaritzarako aproposa. Gainera, aberastasun handia dauka mineraletan. Besteak beste, urrea, petrolioak, ikatza eta kobrea dituzte.

Herrialdearen hego-ekialdean mendikate handiak topatuko ditugu, iparraldeko zelaiekin aurrez aurre. Jugoslaviako mendirik garaiena Daravica da, eta tontorra itsas mailatik 2.656 metrotara dago. Hego-mendebaldean, aldiz, Jugoslaviak itsaso Adriatikoarekin egiten du topo. Zelaiak, mendi handiak eta itsasoa beraz, guztia ere herrialde berean pilatua.

Jugoslaviako kulturaren herri musikak garrantzi handia du. Serbian, esaterako, badago Blehmuzika deitzen dioten musika mota bat, berta-bertakoa dena.

Bestalde, gaita oso **hedatua** dago Jugoslaviako musikan. Eurek *Caraba* (gaita txikia) eta *Gadje* (beste gaita mota bat) deitutako gaita motak erabiltzen dituzte, bereziki. Festetan ere adituak dira jugoslaviarrak. Martxoaren 28an serbiarrek euren eguna ospatzen dute. Montenegroarren eguna, aldiz, uztailaren 13a da. Horretaz gain, urte barruan hainbat musika eta zinema jaialdi ere antolatzen dituzte.

Onera zu zeu hara joan eta zer iruditzen zaizun ikustea da! Ziur gustuko izango duzula!

### Ulermen galderak

1. Zer gertatu zen 1991. urtean?
2. Zein da Ipar Jugoslaviako paisaia?
3. Zein da Jugoslaviako ezaugarri nagusia? Nola laburbilduko zenuke?

### Gramatika galderak

4. Jar itzazu lehen aldian testuan ateratzen diren aditz hauek: *dute*, *dakizu*, *zituen*, *dauka* (Puntu bat)

5. Egin ezazu esaldi bana testuko hitz atzizkidun horiek erabiliz. Hoña hitzak: *garrantzitsua*, *ugaritasuna*, *emankorra*, *hizkuntza* (Puntu bat).

6. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

*II. Mundu Gerran nazien erasoak garaitu eta gero. ....ondoren.*  
*Blehmuzica* deitzen dioten musika mota bat .....-tako .....  
*Gadje* deitutako gaita motak .....-n .....

### Idazketa

Bidaiak egitea gustatzen al zaizu? Kanpoko tokiren bat ezagutu baduzu berriki, kontu ezazu nolakoa den. Bestela, kontu ezazu non egon zaren azken oporretan. Idatzi honi buruz 20-25 lerro gutxienez. (4 puntu).